



Zabalik dago Bertsolarien kantaera eta sormena ikastarorako izen-ematea

UPV/EHU Uda Ikastaroen baitan eskainiko da ikastaroa, abuztuaren 24an eta 25ean. Maiatzaren 31ra bitarte, merkeagoa izango da matrikula.

Aurten ere bertsolaritzak izango du tarte Donostiako Miramar Jauregian gauzatzen diren UPV/EHU Uda Ikastaroetan. *Bertsolarien kantaera eta sormena* izeneko ikastaroa eskainiko da, bi egunetan: abuztuaren 24an eta 25ean, goizez. Jada izena eman daiteke www.uik.eus atarian sartuta.

Hiruna hizlari izango dira egun bakoitzean, eta jardunaldia biribiltzeko mahai-ingurua izango da amaieran. Bertsolarien kantaeraz ariko dira lehenengo egunean Ainhoa Aizpurua, Itziar Navarro eta Maialen Lujanbio; bigarren egunean, bertsolarien sormena izango da ardatz, Eñaut Agirre, Oihana Iguaran eta Jon Martin gidari direla. Hizlari horietatik lau (Agirre, Aizpurua, Iguaran eta Martin) bertsolaritzaren inguruko doktore-tesiak gauzatzen ari dira, neurri handi batean UPV/EHUko

Euskara eta Ikerkuntza Errektoreordetzei, Mikel Laboa Katedrari eta Mintzola Ahozko Lantegiari esker.

UPV/EHU Uda Ikastaroen aurtengo eskaintza aurkeztearekin batera, martxoaren 22an zabaldu zen eskola honetan ere izena emateko epea. *Bertsolarien kantaera eta sormena* ikastaroaren matrikula 70 eurokoa da, baina izena maiatzaren 31 baino lehen emanez gero, %15 beherapena lor daiteke. Matrikula www.uik.eus atariaren bidez bideratu ahal izango da.

Bertsolaritza munduko eragileentzat baliagarria da ikastaroa, bereziki bertso-eskolan dihardutenentzat, eta noski, bertsolaritzarekin eta ahozkotasanarekin gozaten duen edonorentzat zabalik dira atean.

Bertsolaritza unibertsitatean

Badira zenbait urte bertsolaritza unibertsitateko ikasgeletara sartu zenetik. Mintzola Ahozko Lantegiaren bitartez eta UPV/EHU Uda Ikastaroen elkarlanarekin, 2014tik urtero bertsolaritzak tokia izan du Miramarreko udako eskoletan.

Behaketarako gero eta gehiago dira bertsolaritza aztergai hartzen duten ikertzaileak, hein hain batean, Mintzolak ikerketarekin loturiko eragileekin sustatutako elkarlanean esker.



**OIHANE PEREA
PEREZ DE MENDIOLA**
2017ko Arabako Bertsolari
Txapelketako txapelduna
Gasteiz, 2017-IV-1

Txapeldunaren agurra.
Doinua: ETAREN su etenetik

Iratxe ta Samaniego zatitxo bat erdibana
Lautadako bertso-eskola
gauean badugu plana
ta zuei bertsozaleak
hori indarra, hori xarma.
Nik pixka bat sufritu dut
bai aste honetan barna:
ospitalean daukagu
gure etxeko armiarma.
Gogoaren indarra da
entregatzen ez den arma
gaurko honetan txapelak
Maitetxo izena darama.

BERTSOLARIEN KANTAERA ETA SORMENA

Abuztuak 24: BERTSOLARIEN KANTAERA

- 9:15 - 10:15 *Bertsolaritzaren prosodia: hitza eta musikaren arteko harremana ulertzeko gakoak* Ainhoa Aizpurua
- 10:15 - 11:15 *Bertsolarien kantaeraren bilakaera denboran zehar. Oiartzungo kasua* Itziar Navarro
- 11:15 - 11:30 Atsedendaldia
- 11:30 - 12:30 *Zer da doinua, zer da kantaera bertsolariarentzat?* Maialen Lujanbio
- 12:30 - 13:30 Mahai-ingurua: Ainhoa Aizpurua, Itziar Navarro eta Maialen Lujanbio

Abuztuak 25: BERTSOLARIEN SORMENA

- 9:15 - 10:15 *Ahozko hizkeraren ezaugarriak bertsolarien bat-bateko jardunean* Eñaut Agirre
- 10:15 - 11:15 *Bertsoaren agenda. Bertsogintza eta hedabideak* Oihana Iguaran
- 11:15 - 11:30 Atsedendaldia
- 11:30 - 12:30 *Jarioa da sormenaren gakoak* Jon Martin
- 12:30 - 13:30 Mahai-ingurua: Eñaut Agirre, Oihana Iguaran eta Jon Martin

Oihane Pereak jantzi du Arabako txapela

Asier Otamendirekin jokatu du buruz-burukoa, eta azkenean, Pereak jantzi du txapel preziatua Karla Santistebanen eskutik. Principal Antzokia bertsozalez bete da.

Gasteizko Principal Antzokian jokatu zen apirilaren 1ean Arabako Bertsolari Txapelketako finala. Bertsozalez bete zen antzokia, eta giro beroa sortu zuten bertaratu zirenek. Oholtzan, sei bertsolari: Manex Agirre, Iñaki Viñaspre, Oihane Perea, Serapio Lopez, Xabi Igoa eta Asier Otamendi. Saioaren lehenengo zatia amaitu ostean, Asier Otamendik eta Oihane Pereak egin zuten aurrera, eta biek jokatu zuten buruz-burukoa. Azkenean, Oihane Pereak lortu zuen txapela jantzea.

Txapela Karla Santistebanek jantzi zion irabazleari. Santisteban Arabako bertsolaritzaren sustatzailea izan da. 1982an Arabako lehenengo bertso-eskola sortu zuen, Aiaraldekoa, eta geroztik, antolatzailea, gai-jartzailea eta epailea izan da. Arabako Bertsozale Elkartek berak egindako lan isila eskertu nahi izan du.

Beste sari emaileak Arabako bertso-eskoletako ordezkariak izan ziren bertsogintzan, herrigintzan eta euskalgintzan daukaten pisua aitortzeko.

Gai-jartzaile lanetan Aintzane Irazusta eta Nieves del Alamo aritu ziren.



Principal antzokian jokatu zen apirilaren 1ean Arabako finala.//XDZ

Nafarroako Bertsolari Txapelketarako prest

Julio Soto, Xabi Maia, Eneko Fernandez, Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Ander Fuentes "Itturri", Xabier Terreros eta Julen Zelaieta ariko dira Anaitasunako oholtza gainean.

Ate joka dago 43. Nafarroako Bertsolari Txapelketako final handia. Otsailaren 18an abiatu zen txapelketa (iazko abenduan jokatu zen kanporaketa fasea), eta final-laurdenetako eta finalurrekoetako faseen ostean, Agoitzen osatu zen finalisten zerrenda. Hiru finalurrekoetako bakoitzean nagusitutako bertsolariei, sailkapenaren arabera lehen bostak gehitu zaizkie. Horrenbestez, zortzi izango dira Iruñeko Anaitasuna kiroldegiko final handian izango diren bertsolariak: Julio Soto,

Xabi Maia, Eneko Fernandez, Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Ander Fuentes "Itturri", Xabier Terreros eta Julen Zelaieta.

Apirilaren 8an izango da finala, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, 17:00etatik aurrera (16:00etan irekiko dira ateak). Zortzi finalistetatik, Xabi Maia da final batean lehen aldiz ariko den bakarra; gainerakoek, eskarmentua dute txapelketako finaletan. Anaitasunako saioak, Nafarroako txapelduna izendatzeaz gain, udazkenean abiatuko den Bertsolari Txapelketa Nagusirako nafar ordezkariak zehazteko ere balioko du: lehen bost sailkatuek hartu ahal izango dute parte.

www.bertsosarrerak.eus atarian daude sarrerak salgai, eta baita sei salmenta puntu fisikoetan ere: Karrikiri denda (Iruñea), Fantxike denda (Elizondo), Okindegia (Lesaka), Maimur liburudenda (Leitza), Xapatero taberna (Etxarri Aranzat) eta Katxetas taberna (Lizorra). Saioaren egunean bertan, gainera, zabalik izango dira Anaitasunako leihatilak, 11:00etatik aurrera. Finala bukatutakoan, afaria izango da Iruñeko Arrano Elkartean (sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian).

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaren biharamunean, Korrika iritsiko da Iruñera, eta han egingen du bere azken festa. Iruñea, beraz, euskalgintzaren eta kulturgintzaren hiriburu izanen da asteburu horretan.



2015eko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala, Anaitasun.//XDZ

Onartu da Bertsozale Elkartearen 2017ko egitasmoa

Larunbatean egin zen Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Batzarra Ozaetan. 74 bazkide hurbildu ziren hitzordura.

Aho batez onartu ziren Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusian 2016ko balantze ekonomikoa eta 2017rako aurrekontua. 74 bazkide hurbildu ziren Barrundia udalerriko Ozaeta herrira, Araban.

Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakariak eman zien ongietorria hurbildutakoiei. Harekin ziren batzarra gidatzen Aritz Zerain Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko koordinatzailea, Xabier Gaztelumendi idazkaria eta Arrate Illaro diruzaina.

2016ari errepassoa egin zitzaion ikus-entzunezko baten bidez eta aurtengoan gauzatuko den egitasmoaren berri eskaini zuten lurraldeetako ordezkariak: Patxi Aizpurua Arabako Bertsozale Elkarteko idazkariak eta Asier Ibaibarriagak, Saroi Jauregik, Joana Itzainak eta Alaitz Rekondok, Bizkaiko, Gipuzkoako, Bertsularien Lagunak eta Nafarroako bertsozale elkarreetako lehendakariak, hurrenez hurren. Aipatzekoa da Bertsularien Lagunak Elkarteak lehendakari berria duela eta Joana Itzainaren lekukoa Xumai Muruak hartuko duela.

Aritz Zerain EHBEko koordinatzaileak ekin zion sailen egitasmoen aurkezpenari, eta hortik abiatuta azaldu zituzten sailtako arduradunek 2017ra begira egiten ari garen lana. Horien artean nabarmentzekoa da Bertsolari Txapelketa Nagusia izango dela aurturteko; emanaldi bereziak sustatzen jarriko dituela indarrak Lankuk; hezkuntzan, ikasmateriala garatzeari emango zaiola lehentasuna; eta, ikerkuntzari dagokionez, bertsolaritzaren inguruan piztu den ikerketarako grinari – 10 tesi daude abian – eutsiko diola Mintzola Ahozko Lantegiaren bidez.

Bertsozale Elkarteak Barrundiako Udalarari eskerrak eman nahi dizkio, Iduia Jauregia uzteagatik eta hain abegikorrek izateagatik. Era berean, Pablo Jausoro bazkideari eta bere sendiari eskerrak eman nahi dizkio, Ozaetako elkartearen prestatutako jatordueengatik.

Hasi da bada 2017a Bertsozale Elkartearen ere. Izan bedi urte oparoa.



Ozaetan egin zen 2017ko Batzar Nagusia.//XDZ

Lau atal berezirekin bukatuko da Hitzetik Hortzeraren denboraldia

Apirilaren 23an bukatuko da Hitzetik Hortzeraren aurtengo denboraldia, eta lau atal berezi prestatu dira aurtengo biribiltzeko. Lehenengo bietan Arabako eta Nafarroako bertsolari txapelketek emandako onena bildu da. Apirilaren 16an, berriz, Xabier Amurizaren bertso ibilbidea errepassatuko da Andoni Egañak egingo dion elkarriketa ardatz hartuta. Eta azken programan, azken 50 urteotan Bertsolari Txapelketa Nagusian entzundako bertsoaldi onenak jasoko dira.

26 atal eta 24 gonbidatu

26 atalekin eta formatu berrituarekin iritsi zen Hitzetik Hortzera, eta 24 gonbidaturen begirada anitzekin aztertu da plazako jarduna.

Udazkenean itzuliko da Hitzetik Hortzera, Bertsolari Txapelketa Nagusia bertsozaleen etxeko goxotasunera ekartzera.



Puntu jarrita

IÑAKI APALATEGI ASTIGARRAGA

Askotan uzten nau Aitorrek zer esan ez dakidala, batik bat esan beharrekoak berak esan dituelako. Honetan ere ez da oso desberdina. Nola motibatu txapelketarako? Txapelketa bi gauza da batera: sufrimendu eta gozamen plaza batetik, eta laborategiko probeta bestetik. Probeta diot, urte askoan plazan jardun daitezkeen bertsolarien probaleku zenaren ustea izan dugulako. Kasu batzutan hala izan da, baina oro har, plazako bestelako eraginaren itzalak ere baditu.

Hori dela eta, txapelketan pentsatzean bere horretan, eta ez bere ondorioetan, pentsatzea komeni dela iruditzen zait; bai motibatzeke, eta baita kausa-efektu irudikapen okerrik ez egiten laguntzeko ere.

Txapelketarako motibatzea bada kontua, gazteenei oholta inoiz konpartitu gabekoekin konpartitzeak eta kokaz igotzen saiatzeak emango die ziur aski motibazioa; arituxeagoi, beraien mugak bilatzeak, egindako lana erakusteak... bertsolaritzan lanbide nagusitsutzat dutenek begi bistako beste motibazio bat ere izango dute, noski.

Txapelketaran kantatzeko aukera denero somatzen da inguruko espektatiben itzala,

bertsokideen prestaketarako "gogoa", motibazioaren motibatzearen bilaketa... eta bakoitzak bere errezeta izaten du. Dena ez da, ordea, motibatu beharra; ez motibatzea ere erabaki dezake bertsolariak. Zerk eramaten du bat "orain artekoekin nahikoa da" pentsatzera? Burutik pasa ez ezik, egin ere egin duenari entzun nahi nioke. Ea Ekaitz Goikoetxeak zer dioen.

Koplak

Ondare kulturalaren jardunaldietan izango gara, Asturiasen

Mintzola Ahozko Lantegiko ordezkariok Asturiasera joango gara apirilaren 21etik 23ra, Villanueva de Santo Adriano herrira. Bertan *Patrimonio cultural e innovación social. Modelos y herramientas para la gestión comunitaria del patrimonio cultural* jardunaldietan parte hartuko dugu.

Poto-Finixa



Bigarren fasean murgildu dira Gipuzkoako Herriartekoa eta Bizkaiko Taldekakoa

Aurrera doaz taldekako txapelketak: Herriartekoa, Gipuzkoan eta Taldekakoa, Bizkaian. Biak abiatu ziren otsailean, eta lehenengo faseko saio guztiak jokatu dira herrialde bietan. Gipuzkoan 12 talde pasa dira bigarren fasera eta Bizkaian, 10. Gipuzkoako Herriartekoaren finala maiatzaren 27an jokatu da Azpeitian; Bizkaiko Taldekakoarena, ekainaren 3an, Markina-Xemeinen.

<p>Kontratazioak eta informazio gehiago:</p> <p>Lanku www.lanku.eus 943 26 07 55</p>	<p>TES TU RAK</p> <p>TESTUAK: TESTUAK ZABALETXI, ESTURA</p> <p>LITERATURA TESTUAK: ABIAITUTAKO BERTSO SAIOA</p>	<p>OHOLTZA</p> <p>BENAT KROLEM</p>	<p>PETRESKU ETZI EZ ETSI!</p>
---	--	---	--------------------------------------

PUBLIZITATEA